


ARGAZKI KAMERA

optiko bezala, sistema optiko batek eta



hartaile fotosentikor batek osatzen dute.

Sistema optikoa (OBJEKTIBOA), objektuaren irudi erreal eta alderantzikatua hartailearen gain proiektatzeaz arduratzen da. Hartzailea, bere aldetik, **argiarekiko sentikor den emultsio-geruza batez estalitako plaka edo pelikula batez osatuta dago,** eta mintz horrek errebelatu-prozesu baten bidez objektuaren erreproduzioa emango digu (**kamera digitalean CCD sensore bat da**).



Argazki kamera guztiak, **formatuaren** arabera, hiru multzo nagusitan bil daitezke: formatu handiko edo ertaineko kameraren (**Reflex**), formatu txikiko kameraren (**kompaktoak**) eta kamera **berezien** multzoetan. Kameraren oinarritzko elementuak ezagutu beharko ditugu.



Reflex kamera

Kamera guztiak, baita sinpleenak ere, ondoko elementuak dituzte:

objektiboa, irekidura edo diafragma, obturadorea, bisorea eta plano fokala.

Objektiboa

Bere formarik sinpleenean lente konbergente bat da.

Objektibo-mota "normala" deritzona, begia bezalako perspektibarekin ikusten duela kontsideratzen da. 35 mm-ko kameretan, 50 edo 55mm-koa.

Irekidura edo diafragma

Objektiboaren ondoren (argiaren bidearen norantzari jarraituta) dagoen irekidura da. Begiaren irisak bezala funtzionatzen du, bere diametroaren arabera (zenbait kameratan finkoa, beste zenbaitetan alda dezakeguna), argi gutxiago edo gehiago sartuko da kamerara. Diafragma gehienak, eraztun batez gradualki alda daitekeen diametroa eratzten duten xaflatxo batzuek osatuta daude.



Obturadorea

Elementu honek argia pelikula edo emultsiora noiz eta zenbateko iraupenez iritsiko den erabakiko du.

Segunduaren zatikitan zailkatzen da obturadorearen abiadura



Teleobjetibo bat

Reflex kameratan objektiboak aldatu egiten dira